

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Azterketa batek behar adina eskaera hauteman du Iruñeko Aireportuak Europarekin lotura izan dezan

Nafarroako Gobernuak Paris-Charles de Gaulle, Frankfurt eta Amsterdam-eko aireportuetan lan egiten duten konpainiekin harremanak hasiko ditu, aireportuko lotuneak direnak

Asteazkena, 2016.eko urriak 5

Azterketa batek egiaztatu duenez, behar adina eskaera dago Iruña-Noaingo Aireportuak Europarekin lotura bat izan dezan. Horregatik, Nafarroako Gobernuak harremanak hasiko ditu Paris-Charles de Gaulle, Frankfurt eta Amsterdam-eko aireportuetan lan egiten duten konpainiekin, aireportuko lotuneak direnak (hub).



Azterketa batek behar adina eskaera hauteman du Iruñeko Aireportuak Europarekin lotura izan dezan.

Gainera, azterketa horrek ekonomikoki bideragarria izango dela adierazten du ere, haren eragin-gunean eskaera egon baitaiteke. Nafarroako Ekonomia ondorio "adierazgarriak" izan ditzake, eta aireportuak sortzen duen aberastasuna bikoiztu ahalko zen. Gaur egun, balio erantsi gordinean (BEG) 9,2 milioiko inpaktua du, hau da, salmenten eta erosketen arteko aldea, eta eskaintza zabalduz gero, 8,9 milioi gehiagoko eragina izan ahalko zuen.

Zergetan, Nafarroako diru-bilketa % 66 igoko zen, egungo zergen bidezko 1,8 milioi diru-sarreretatik 3 milioira pasatuz (1,2 gehiago). Eta enplegua sortzeari dagokionez, hornitzaile nafarrek 74 lanpostu gehiago sortuko zituzten. Lehendik dauden 200 lanpostuei gehituko zitzaizkien.

Horiek dira Nafarroako Gobernuak, Sodena enpresa publikoaren euskarri teknikoarekin, lizitatutako diagnostikoaren txostenetik ateratzen diren ondorioetako batzuk Noainen abian jarritako lerro berriak baloratzeko eta eskualderako sor dezakeen aberastasuna ezagutzeko (enpresan, turismoan...) bere gaitasunaren oso azpitik dagoen jardura baten azpiegituraren inguruan: 150.000 bidaiari 2015ean, 1 milioirako terminal berri bat izan arren.

Foru Gobernuak asteazken honetako Gobernu bileran diagnostikoa eta gomendioak aztertu ditu. Bertan jasotzen diren moduan, Gobernuak Paris-Charles de Gaulle, Frankfurt eta Amsterdam-eko aireportuetan lan egiten duten konpainiekin harremanak hastearen alde agertu da, lehenasunezko lotura-zentroak direnak, honako hauen berri izateko: Foru

Komunitatean ezartzeko prest izango ziren eta bertan lan egiteko jarriko zituzten baldintzak, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik ondoren emandako prentsaurrekoan azaldu duenez.

Azterketaren arabera, existitzen den eskaerari esker, bi hegaldi pareko ibilbide bat egin ahalko zen egunean asteko egun guztietan, eta hegazkinak gaua Iruñean igarotzea. Helmogaren arabera, urtean 160.000-200.000 bidaiari inguruk erabiliko zutela kalkulatu da.

Bartzelonarako ibilbidea

Txostenak lehentasunez jotzat jotzen du Europarako lotura, nahiz eta bideragarria ikusten duen ere aldi berean Bartzelonarako ibilbide bat egotea. Linea horrek iraganean baino gaitasun gutxiago du, beste garraiobide batzuetan izandako hobekuntzak ikusirik (trena) eta Iberiako lotura-zentroaren estatusa galdu ondoren.

Air Nostrum-ek ibilbide hori egiteko interesa agertu du.

Babes eta onura gehigarriak

Hasiko diren elkarrizketekin batera, Foru Administrazioak Europako legeriak jasotzen duen babes-aukerak aztertuko ditu ere aireportu txikiak sustatzeko; horrenbestez, lehen urteetan lineak abiarazten lagunduko dute, ibilbidea guztiz martxan jartzen den arte, txostenean gomendatzen den moduan.

Txostenean esaten denez, "oro har, onura ekonomikoak ziur asko izan daitezkeen babes-neurrien kostua baino askoz handiagoak izango dira".

Gainera, Gobernuak Nafarroako enpresa-saretik Noingo zerbitzuen zabaltze horren aldeko babesa jasoko du; hala, bederatzi ibilbide abian jartzea konpromiso partekatu baten emaitza izango da, lehendakariordeak aurreratu duenez.

Diagnostikoaren arabera, Nafarroako onurak BEGn, enpleguan eta zerga bidezko diru-sarreraren sorreran neurtu daitezkeen eragin zuzena baino handiagoak izango ziren,

Alde batetik, txostenak azpimarratzen du aire-garraioko sarbidea ezarpenerako faktore garrantzitsua dela nazioarteko loturak dituzten nazioarteko eta estatuko enpresetarako.

Bestalde, eskualdean kokatutako enpresen lehiakortasuna hobetzen lagunduko du. Izan ere, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak, lehiakortasuneko funtsezko bost faktoreen artean, kokatzen du azpiegiturretan eragiteko beharra, haien artean "pertsonek eta salgaien garraioa".

Zehazki, Iruña jatorria edo helmuga izango duten negozio-bidaiak areagotzeko aukera emango du eta negozio-bidaien antolaketa eraginkorra hobetuko du («egun bateko bidaiak»); enpresa nagusiarekin edota hornitzaileekin kontaktua izatea erraztuko du, eta marketin, banaketa eta salmentetako jarduerak areagotu eta optimizatuko ditu; azoka eta kongresuetarako partaidetza eta bisitak erraztuko ditu eta lankidetzak gehiago izatea; horniketarako eta saltzeko merkatu berriak garatzea; atzerritarrei beren jatorrizko herrialdeetara bidaiak pribatuak egiteko aukera ematea; eta antolaketa korporatiboa arrazionalizatzea. Turismo-arloan beste abantaila batzuk aurreikusten dira, turista berriek egindako gastutik sortutakoak...

Azterketa eta metodologia

"Iruña-Noingo aireportuko bidaiarien balizko eskaeraren eta aire-ibilbide berrien eragin ekonomikoaren gaineko azterketa", duela urtebete lizitatu zuen Garraio Zerbitzuak, Sodena Nafarroako garapenerako sozietate publikoko babes teknikoarekin egin da, eta 2014an sortutako Nafarroako Aireportuko Koordinazio Batzordeak erakunde kudeatzaile izendatu zuen Iruña-Noingo aireportu inguruko enpresa nahiz turismoko jardura sustatzeko. Azterketa hau Nafarroako Gobernuak eratzeko programa-akordioan jasotzen zen.

Zehazki, txostenaren helburua Gobernuari irizpide-elementu objektiboak ematea zen honako hau baloratzeko eta erabakitzeko: komenigarria den giza baliabide eta ekonomiko publikoak bideratzea Iruñeko Aireportutik aire-lotura berrien ezarpena babesteko.

Bi ziren arrazoi nagusiak: ibilbide bideragarriak ezartzeko eskaerarik badagoen jakitea; eta baiezkoa bada, eskualderako aberastasuna kuantifikatzea (industrien lehiakortasuna beraien irisgarritasuna hobetzean, jarduera ekonomikoa sortzea).

Azterketa garraio eta aireportuetako ekonomian aholkulari eta espezialistak diren MKMetric eta Uniconsult enpresen esku geratu da, eta 36.000 euroko kostua izan du.

Metodologia berritzaile bat erabili dute, aireportuz aireportu izandako bidaiarien bolumenean ez baitira oinarritu soilik (ikuspegi tradizionala), baizik eta aire-garraioa simulazioa eta aurreikuspenak integratu ditu garraioaren merkatua bere osotasunean sartzen eta kontuan hartzen dituzten harreman garrantzitsuen esparruan, bai eta izaera demografiko, ekonomiko, espazial eta teknikoko osagaiak ere. Hala, erabilitako ereduak kontuan hartu dituzte, besteak beste, aireportuen arteko lehia eta garraioa ezberdinen artekoa; joan-etorrien arrazoiak; kontsumitzaileak hainbat aldagaitarako duen malgutasuna (prezioa, denbora, maiztasuna...).

MKmetric 1993an sortu zen Karlsruhe-ko Teknologia Institutuko (KIT) spin-off modura, garraioaren ekonomian oinarritua, Europako aireportu txiki eta ertainetan oinarritua bereziki, eta Alemaniako Gobernurako eta Europar Batasunerako proiektu garrantzitsuak izanik. Ikerketan 23 urtetako esperientzia du, eta 19 urte garraioei buruzko aholkularitzan.

Bestalde, Uniconsult, Hamburger Hafen und Logistik AG (HHLA) enpresaren aholkularitza filiala da, Hanburgoko portuko edukiontzien terminaleko operadore nagusia da (3 terminala, eta 2015ean 1.200 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena zuen (portuko, intermodal eta logistiken Alemaniako operadore nagusietako bat).